

Bermeo, 2121eko irailaren 1a

Familia agurgarria:

Konturatu orduko, ikasturte berri baten atarian gaude. Oporraldia eta gero nekeza izaten da betiko errutinetara bueltatzea baina egin beharra dago eta egitekotan, egin dezagun lasaitasunetik!

Atzean, ikasturte berezi bezain gogorrak utzi ditugu eta badirudi, hurrengoak lasaiagoak izango direla. Bada ezpada ere, ez diogu errespeturik galduko COVIDari.

Etorkizuneko herritarrak heztea da ikastolaren helburu nagusia eta horri oratuko diogu beste ikasturte batez. Ez ginen geldirik egon pandemiak gogor jipoitu gintuenean, ezta gutxiago orain, lasaitasun pixka bat ematen digula uste dugunean.

Erronkak planteatzen dizkiegu gure ikasleei eta hori izango dugu iparra guk ere: erronkak.

Erronkaz beterik dator ikasturte hau. Alde batetik, gure ikastolaren irudia gaurkotu nahi dugu. Bestetik, pedagogikoki eman ditugun aldaketek, espazio desberdinak eskatzen dizkigute. Hori abiapuntu etorkizuneko ikastola marraztu eta eraiki nahi dugu. Horretarako, prozesu parte hartzaile bat irekiko dugu, komunitate osoaren ahotsa entzun dadin.

Hezkuntza eskaintza integral batean zerbitzuek ere garrantzia dute eta eskaintzen ditugun zerbitzuak hobatzea eta zuen, familien, beharrianetara moldatzea (posible denean) dugu helburu bakarra.

Langileen formakuntza etengabe jarraituko dugu, hori bait da gure ikasleen onuran eraginik eta gehin duen faktorea.

Aurreko ikasturtean mahairatutako ordutegien gaiari burubelari oratuko diogu eta prozesu partehartzaile bat irekitzeko konpromezua berresten dugu hitz hauekin. Kooperatiba honetan, zuen hitza entzutea oso garrantzitsua da guretzat.

Estropadaren hirugarren luzean sartzen gara, gogoz eta ilusioz. Emango ditugun palada guztiak ez dira onak izango, baina, ikasiko dugu hortik ere.

Beti bezala, gurekin ez daudenak gogoratuz amaitu nahiko genuke.

Nondik gatozen jakitea garrantzitsua da, norantz goazen jakiteko eta.

Ongi etorri 2021- 2022 ikasturtera eta zaindu zaitezte!